

Proiektuetarako jarduerak | 2. Blokea : Edukiak sortzea

Bigarren Hezkuntza. 12 - 15 urte

Historia duten komikiak



**Bigarren
Hezkuntza**

12 - 15 urte



Maila

Ertaina

Denboralizazioa



10 saio

- o 1. Fasea: 2 saio
- o 2. Fasea: 6 saio
- o 3. Fasea: 2 saio



Kideak

2 kide

JARDUERAREN DESKRIPTIONA

Nazioarteko ekipoetan antolatuta, ikasleek komiki digitalak sortuko dituzte, benetako istorioak eta gertakari historikoak oinarri hartuta. Horretarako:

- o Irakasleek proposatutako gai batekin lotuta dagoen benetako istorio bat edo gertakari historiko bat bilatu, aukeratu eta aztertuko dute. Gero, haien komikiak horretan oinarrituko dituzte.

- Lurralde bakoitzeko taldeek istorio bera izango dute, eguneroko pertsonal eta komiki digital moduan, baina taldekide bakoitzak bere ikuspegitik kontatuko du.
- Azterlanak, egunerokoak eta komikiak aldizkari digital kolaboratibo batean argitaratuko dira.

JARDUERAREN XEDEA

- Gai ezberdinekin lotuta dauden benetako istorio eta gertakari historikoak bilatu, aukeratu eta aztertzea arrazoibide kritikoa, idatzizko adierazpena eta sormena garatuz.
- Informazio hori eraldatzea komiki digital bat sortzeko, eta horretarako nazioarteko ekipoetan eta ikuspegi ezberdinetatik lan egitea.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea

1. Urratsa: Nazioarteko ekipoak sortzea

1. Irakasleek 1. foroa sortuko dute, “*TALDE-LANA*” izena izango duena, nazioarteko ekipoak sortzeko. Sei gai proposatuko dituzte eta haiekin lotutako benetako istorio bat bilatu, aukeratu eta aztertu beharko dute bi ikuspuntu ezberdinetatik kontatzeko.



2. Lurralde bakoitzeko talde nazionalak gehien interesatzen zaien gaiaren harian idatziko dute, baina bakarrik nazionalitate bereko beste talde batek lehenago erantzun ez badu. Irakasleek nazioarteko ekipo bat sortu dela jakinaraziko dute gai batek lurralde bakoitzeko talde bana duenean.



3. Irakasleek 1. orrialde nagusia sortuko dute, “*LAN EGITEKO EKIPOAK*” izena izango du eta, bertan, programatutako jarduerari buruzko jarraibideak, gaien izenak jasotzen dituen taula bat eta ekipoaren izena osatzen duten taldeen izenak izango ditu.



4. 1. orrialde nagusi honetan, ekipo bakoitzeko azpi-orrialde bat sortuko da. Haietan, jarraibideak, komunikatzeko foro bat eta Driven konpartitutako dokumentu bat izango ditu atazak elkarrekin egiteko.



2. Urratsa: Ekipoen kontuak sortzea komikiak egin ahal izateko

Irakasleek nazioarteko ekipo bakoitzari erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat emango diete. Era horretan, ikasleek ez dute erregistratu beharrik Pixton erabiltzeko.



2. Fasea: Garatzea

1. Urratsa: Istorioak bilatu eta aukeratzea

Talde nazional bakoitzak aukeratu duen gaiari buruzko benetako istorioak bilatu eta aukeratuko ditu. Bere ekipoaren eztabaidagaia erabiliko dute 1. foroan ideiak partekatzeko eta adosteko talde bakoitzak zein istorio kontatuko duen eta zein ikuspegitik.



2. Urratsa: Istorioa aztertzea

Nazioarteko ekipoek aukeratu duten istorioa aztertuko dute ekipoaren azpi-orrialdean partekatuta dagoen dokumentuan idatziz. Sakatu [hemen](#) dokumentu horren txantiloia ikusteko.

3. Urratsa: Egunerokoa prestatzea

Ekipo nazional bakoitzak pertsonaia historikoaren egunerokoa idatziko dute bere ekipoaren dokumentu partekatuan.

4. Urratsa: Gidoi grafikoa prestatzea

Dokumentuan bertan, taldeek kontatuko duten istorioaren gidoi grafikoa egingo dute. Bertan, honakoak jasoko dituzte: narratzailea, gertalekuak, pertsonaiak, testua, arazoa, konponbidea eta amaierako mezua.

5. Urratsa: Komikia sortzea

Talde bakoitzak bere komiki digitala sortuko du bere egunerokoa irudiztatzeko. Pixton aplikazioa erabiliko du bere nazioarteko ekipoari egokitu zaion erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliz.

3. Fasea: Praktikan jartzea

1. Urratsa: Istorioak, egunerokoak eta komikiak argitaratzea

1. Irakasleek aldizkari digital bat sortuko dute Madmagz aplikazioan eta esteka kolaboratibo bat txertatuko dute ekipo bakoitzaren azpi-orrialdean.



[Madmagz-en tutoriala](#)

2. Triciderren inkesta bat sortuko da. Ikasleek aldizkariarentzako azal-proposamen bat sortu eta horra igoko dute, baita irudiaren deskripzioa ere. Inkesta 2. orrialde nagusian txertatuko da, “*GURE AZALA*” izena izango duena.



3. Ikasleek gogokoen duten irudia bozkatuko dute eta alde eta kontrako argudioak emango dituzte. Sakatu [hemen](#) “Interacteen T.E.A.M” eTwinning proiektuan egindako jardueraren adibide bat ikusteko.



4. Talde bakoitzak artikulu bat –istorio errealaren analisisa eta iturriarekin–, egunerokoa eta komikia –ekipoaren dokumentu partekatutik kopiatuko dute– igoko ditu aldizkarira. Ekipo bakoitzak pasahitz bera erabiliko du irakasleek haien azpi-orrialdeetan txertatu duten esteka kolaboratibora sartzeko. Sakatu [hemen](#) aldizkariaren eredu bat ikusteko. “Interacteen T.E.A.M.” eTwinning proiektuaren barruan Europako ikasleek idatzitako artikulu bat du.



2. Urratsa: Aldizkaria jakitera ematea

- o Irakasleek 3. orrialde nagusia irekiko dute. “*ALDIZKARI DIGITALA*” izena izango du eta Twinspaceko aldizkarian txertatuko da.



3. Urratsa: Lana baloratzea

1. Irakasleek 4. orrialde nagusia sortuko dute “*AMAIERAKO BALORAZIOA*” izena izango duena. Bertan, Padlet horma digital bat txertatuko dute ikasitakoa ebaluatzeko.



2. Artikuluak, egunerokoak eta komikiak irakurri ondoren, horma horretan iruzkinak egingo dituzte eta aipatuko dute zer ikasi duten eta zein historia izan den interesgarriena haien ustez eta, gainera, haien ikaskideak zoriondu egingo dituzte egindako lanarengatik.



PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

Aldizkari digitala benetako istorioetan oinarritutako artikulu, eguneroko eta komikiekin.

TWINSPECEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- Twinspace: proiektuaren egunerokoa, foroa, Twinspaceko orrialdeak
- Komikiak on line sortzeko aplikazioa: [Pixton](#) edo StoryboardThat
- Horma digitalak: Padlet edo Dotstorming
- Inkesta digitala: Tricider
- Aldizkari digitalentzako aplikazioa: [Madmagz](#) edo gustuko beste bat

BENETAKO PROIEKTUETAN EGINDAKO JARDUEREN EREDUA(K) (PRAKTIKA ONEN EREDUAK)

- **“Interacteen T.E.A.M.” proiektuaren Twinspacea:** <https://twinspace.etwinning.net/10393/home>
- **Pixtonekin egindako komiki kolaboratiboak:** <https://Pixton.com/es/:6zn9bpkt>
- **Errefuxiatuei buruzko komikiak:** <https://madmagz.com/magazine/780549#/page/20>
- **Ekipoaren dokumentu partekatua:** https://docs.google.com/document/d/19grhzmzSE5hmBbMDxrf865xrk03DJ_ijMs8I1UtiCEI/edit?usp=sharing
- **Jarduerarako sortu den Twinspaceerako esteka:** <https://twinspace.etwinning-training.net/10302>